

Gai ordena:

- 1.- Energia aurrezteko plana.
- 2.- Dirulaguntza: Jarduera fisikoa sustatzeko ekintzak.
- 3.- Zubingo zabortegia
- 4.- Gai pendienteen errepassoa.
- 5.- Datorren kurtso hasierarako erronkak.

- 1.- Energia aurrezteko plana

A.R. Taldekideak proposamen bat aurkeztu du.

Oro har lantaldeko partaide guztiek bat egiten dute proposamenean zehaztutako helburuekin. Eztabaida piztu da aurrezten den dirua partida berdinean pizgarri gisa uzteko proposamenarekin. Udal eraikinen diagnostiko bat egingo da (A.R. arduratuko da K.F.-ren laguntzarekin). Eskolarekin hasiko dira eta urrirako zeozer aurkezten saiatuko dira.

- 2.- Dirulaguntza: Jarduera fisikoa sustatzeko ekintzak.

Jaurlaritzako Osasun Sailak jarduera fisikoa sustatzeko ekintzak egiteko dirulaguntza batzuk atera ditu eta bertan hirietan eta hiri-inguruetan ibilbideak edo pasealekuak egokitzeko aukera ematen dute. Hiru proposamen zeuden mahaigainean: Bizikletentzako gordeleku bat egitea herriko plazan, bizikletentzako aparkalekuak jartzea herriko hainbat puntutan eta bankuak jartzea herriko hainbat lekutan, bidegorrian batez ere. Azken aukera hau babestu dugu. O.A. Arduratuko da aurrekontuak eskatzeaz.

- 3.- Zubingo zabortegia

I.A. taldekideak zera komentatu du: Zubingo zabortegietan eginiko azterketan azaltzen da hiri-zabortegia izandakoak ez duela arazo larri sortzen uren kutsadura aldetik. Aldiz, alboan duenak, meategitik metatu ziren zaborrak biltzen dituenak, urak kutsatzen ari dela eta egonkortasun falta ikusten zaiola.

Honen aurrean, Lurzoruen Legea erabiliz, jabeari lurzorua kalitatearen azterketa egiteko eskatu diezaioke Eusko Jaurlaritzak, Udalak hala eskatu eta arrazoituz gero. Beraz, egin behar diren izapideak egiteko asmoa azaltzen da

- 4.- Gai pendienteen errepassoa.

Pendiente zueden hainbat gaien inguruko informazioa eman da: Beitiko iturriko rejilla moldatu da, Telefonicaren atzerapena fibra optikoaren despliegeari besaien egin behar dituzten lanengatik, argiteria berritzeko prozesuaren egoera aurrera dihoala...

Plaza eta bidegorria "bereizteko" kontuak (azkeneko bileratan atera izan dana) protagonismo berezia hartu du. Mahaigainean banku eta beste elementu batzuren aurrekontuak baditugu baina oraingoz erabaki da plazako banku dobleak fila bakar batean jartzea lortu nahi den bereizketa fisikoa egiteko. Modu horretan ikusi ahal izango dugu ideia ona den ala ez inbertsiorik egin gabe...

- 5.- Datorren kurtso hasierarako erronkak.

Datorren kurtsorako bi erronka nagusi definitu ditugu: Beko Kaleko proiektua bultzatzea eta eskola berriaren kokapenaren inguruan erabakiak hartzea. Bi gai horiek modu sakonagoan lantzeko bi data definitu ditugu: Beko Kale -> irailean eta eskola berriaren kokapena -> azaroan.